

Euskal ekonomiaren bilakaera 2021IIIH

2021eko abenduaren 10a



kutxabank
empresas

1

Laburpena

2

Euskal ekonomia

BPGd-a
Barne eskaria
Kanpo sektorea
Lan-merkatua
Inflazioa
Sektore publikoa
Finantza-sektorea
Adierazleak

3

Ingurunea

4

Aurreikuspenak

1. Euskal ekonomia 2021IIIHn: espektatiben moteltzea

Inguruko ekonomietan bezala, **21IIIHn**, EAEko **BPGd**-aren igoera apaldu egin da, % **3,9**ra (u/u). Omikron aldaerak ekarri duen Covid-aren suspertzearekin batera etorri da ekonomiaren moteltze hori. Kutsatzeak gorako fasean daude oraindik, eta oraindik ez gara inflexio-puntura iritsi. Horrenbestez, datorren ekitaldirako aurreikuspenak beherantz doitu behar izan dira. Euskal ekonomiaren portaera, hazkunde-tasen joeraren moteltzeari dagokionez, erreferentziazko ingurunean ikus daitekeenaren antzekoa da eta agerian uzten du **osasan-arloaren eta ekonomiaren bilakaeraren arteko lotura handia**.


Enpleguaren bilakaera ona bada ere eta nabarmen hazi den konfiantzaren portaera itxaropentsua den arren, **etxeen eta enpresen kontsumoa asko apaldu da**. Horren ondorioz, barne-eskariaren hazkundera murriztu egin da (% 2,7) **eta baita inbertsioa ere**. Kanpo-sektorea izan da hiruhilekoko hazkunderari ekarpen positiboa egin diona, esportazioen dinamismo handiari esker. **Industriaren bilakaera (% 5,5)** oso ahula da, osagaien horniduran sortu diren zailtasunen eta lehengaien zein energiaren prezioen ondorioz. Mugikortasunari aurretik ezarritako mugapenen ondorioz, **Zerbitzuek (% 4)** igoera moderatua izan dute, **Eraikuntzak (% 1,3)** eta, hein txikiagoan, **Lehen sektoreak bezala (% 4,6)**.

Lan-merkatuaren portaera ona izan da eta, EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **21IIIHn, lan-okupazioa 952.924 enpleguetaraino** heldu da, hau da, iazko hiruhileko berean baino **31.981 langile gehiago**. Horietatik, 25.423 enplegu gehiago izan dira Zerbitzuetan, 4.928 Industrian, 1.602 Eraikuntzan eta 25 Nekazaritzan. **Langabezia-tasa % 8,9**raino murriztu da, eta, erreferentziazko ingurunearekin alderatuta, nahiko emaitza positiboa da.

Urriraino metatutako **diru-bilketaren tonu positiboak 12.135M** euroko diru-sarrerak utzi dizkigu, hau da, % **8,2**ko igoera. Motaren arabera, **4.598M €** (% 3,6) PFEZetik etorri dira eta **4.675M €** (% 15,12) BEZetik. Bi tasa horietatik dator ekarpenik handiena. EAEko zorraren maila bigarren hiruhilekoan gora eta gora ari da oraindik eta % **16,6**raino heldu da, pandemiaren eraginak orekatzeko beharrezkoak diren baliabideen ondorioz. Hala ere, EAEko finantzaketa beharrak kontrolpean daude, **226M** euroko desfasea dago, baliabide ez finantzario batzuk konbinatuta, 5.589M euroraino iristen dena; enpleguak, berriz, 5.815M eurotan daude.


2. Hazkundearen moteltzea, Covidaren berragertzearekin batera

Tasas de variación del PIB de la C.A. de Euskadi (%)




Inguruko ekonomietan bezala, **21IIIHn**, EAEko **BPGd**-aren igoera apaldu egin da, **% 3,9**ra (u/u). Omikron aldaerak ekarri duen Covid-aren suspertzearekin batera etorri da ekonomiaren moteltze hori. Kutsatzeak gorako fasean daude oraindik, eta oraindik ez gara inflexio-puntura iritsi. Horrenbestez, datorren ekitaldirako aurreikuspenak beherantz doitu behar izan dira. Euskal ekonomiaren portaera, hazkunde-tasen joeraren moteltzeari dagokionez, erreferentziazko ingurunean ikus daitekeenaren antzekoa da eta agerian uzten du **osasan-arloaren eta ekonomiaren bilakaeraren arteko lotura handia**.

2. Kontsumoaren eta inbertsioaren pixkanakako moderazioa



Enpleguaren bilakaera ona bada ere eta nabarmen hazi den konfiantzaren portaera itxaropentsua den arren, **etxeen eta enpresen kontsumoa asko apaldu da**. Horren ondorioz, barne-ekariaren hazkundera murriztu egin da (% 2,7) **eta baita inbertsioa ere**. Kanpo-sektorea izan da hiruhilekoko hazkunderari ekarpen positiboa egin diona, esportazioen dinamismo handiari esker.


2. Industriaren hauskortasuna, osagaien eskasiaren eraginez



Iturria: Eustat, gure datuak

Industriaren bilakaera (% 5,5) oso ahula da, osagaien horniduran sortu diren zailtasunen eta lehengaien zein energiaren prezioen ondorioz. Mugikortasunari aurretik ezarritako mugapenen ondorioz, **Zerbitzuek** (% 4) igoera moderatua izan dute, **Eraikuntzak** (% 1,3) eta, hein txikiagoan, **Lehen sektoreak** bezala (% 4,6).


2. Omikronen eraginpean, barne-eskaria bide egonkorrago batera itzuli da



PIB Trimestral (demanda)	2020			2021		
	II	III	IV	I	II	III
GASTO EN CONSUMO FINAL	-15,4	-5,9	-5,7	-2,5	18,1	2,4
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	-20,3	-8,5	-9,1	-3,7	22,6	2,1
-Gasto en consumo final de las AAPP	-3,0	3,6	7,2	1,6	5,2	3,5
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	-23,0	-11,4	-8,4	-1,3	21,4	3,7
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	-30,1	-12,2	-5,9	1,9	41,3	7,6
DEMANDA INTERNA	-17,2	-7,2	-6,4	-2,2	18,9	2,7
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-30,1	-15,5	-14,8	-2,4	30,1	12,5
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-26,4	-14,8	-12,7	-1,4	29,8	10,2
PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado	-19,5	-7,5	-7,6	-2,9	18,6	3,9

Aurreko hiruhilekoan eman zen errebote efektuaren ondoren, bilakaera tasen jaitsiera orokortua ematen ari da orain. Urte arteko alderaketan, aldiz, igoera orokortua da, oszilazio analogoa daukan kontsumo publikoan izan ezik.





2. Kanpo-sektorea, suspertzearen akuilu



Iturria: Eustat

Hazkunderari % 1,2ko ekarpena egin dion **kanpo-sektorearen eragin positiboaren** atzean, **Esportazioek (% 12,5)** Inportazioen (% 10,2) aurrean daukaten dinamismoa dago. Hori guztia herrialde aurreratuen suspertzea ematen ari den unean etorri da, nahiz eta globalizazio prozesuarekin batera ezarri ziren hornidura-kate luzeetako etenek traba egiten dioten.

2. Moderazioa eskaintzen osagaien aurrerapenean




Iturria: Eustat


Eskaintzaren osagaien **hazkunde-tasek maila normalizatuagoetara jo dute**, eta denek ala denek tonu hedakorra dute.

2. Zerbitzuek hazkundeari egindako ekarpena industriarenaren halako bikoia da

Estructura y Variación PIB IIIT21



Aportación al PIB IIIT21 (pp)




Iturria: Eustat, gure datuak


Zerbitzuen sektoreak euskal ekonomiaren hazkundeari egindako ekarpena **Industriarenaren** halako bitik gorakoa da. Hain zuzen ere, **Zerbitzuek** EAEko BPGd-aren % **63,4** sortu dute eta, 21IIHn % 4 erreala hazi ondoren, **2,5pp**-ko ekarpena egin diote BPGd-ari; **Industriak**, aldiz, % **21**eko pisuarekin, % **5,5** hazi da eta guztira **1,2pp**-ko ekarpena egin dio **hazkundeari**; azkenik, **Eraikuntza**, euskal BPGd-aren % **5,4**arekin, % **1,3**ko igoera erreala izan du eta **0,1pp**-ko ekarpena.

2. Produktibitate industrial, altuena

Estructura Empleo y PIB IIT21



Productividad por sectores IIT21




Iturria: Kontu ekonomikoak. Eustat. Gure datuak

BPGd-aren osatze-egituran sektoreek daukaten pisu erlatiboen arteko konbinazioari eta enpleguak multzo orokorrean dituen pisu erlatiboari esker, sektore bakoitzaren produktibitatea kalkulatu daiteke. Hiruhilekoan lortu den emaitzak erakusten du nola **industria sektorearena den produktibitate handiena** eta, enpleguaren % 20,9arekin, produktuaren proportzio handiagoa lortu du (% 21,5). Kontrako aldean, lehen sektorea, sektorekako produktibitate apalenarekin. Zerbitzuen eta Eraikuntzaren arloko produktibitate maila apalagoa da, enpleguaren profila ez delako horren kualifikatua.

2. Aurrerapausoak langabeziaren murrizketan, % 8,9raino


Tasa de paro: IIIT21 8,9%



Fuente: Eustat. Encuesta de población en relación con la actividad

31.981 empleados más que en IIIT20

Puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo




Iturria: Kontu ekonomikoak. EPA. Eustat.

Lan-merkatuaren portaera ona izan da eta, EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **21IIIHn, lan-okupazioa 952.924 enplegetaraino** heldu da, hau da, iazko hiruhileko berean baino **31.981 langile gehiago**. Horietatik, 25.423 enplegu gehiago izan dira Zerbitzuetan, 4.928 Industrian, 1.602 Eraikuntzan eta 25 Nekazaritzan. **Langabezia-tasa % 8,9raino** murriztu da, eta, erreferentziatzko ingurunearekin alderatuta, nahiko emaitza positiboa da.


2. Inflazioa, geratzeko etorri da?

Inflación por sectores

Evolución CAE





Evolución de la Inflación



Iturria: INE

Energiaren eta lehengaien prezioek eragin handiagoa daukate oso mendekoak diren eta hornitze-kate oso deslokalizatuak dauzkaten ingurune energetikoetan. 2021eko urrian, EAEko KPIaren urteko bariazio-tasa kontrolpetik kanpo dago oraindik, eta % 5era heldu da. Hori bai, **momentuz ez da ikusten geldinflazio arriskurik** (hazkunderik gabeko prezioen igoera), fenomeno honek izaera iragankorra baitu eta bide moderatura itzuliko baita, nazioarteko merkatuetan salgaien joan-etorria normalizatu ahala.

2. Defizit kontrolatua eta diru-bilketa sendoa




Urriraino metatutako **diru-bilketaren** tonu positiboak **12.135M** euroko diru-sarrerak utzi dizkigu, hau da, % **8,2**ko igoera. Motaren arabera, **4.598M €** (% 3,6) PFEZetik etorri dira eta **4.675M €** (% 15,12) BEZetik. Bi tasa horietatik dator ekarpenik handiena. EAEko zorraren maila bigarren hiruhilekoan gora eta gora ari da oraindik eta % **16,6**raino heldu da, pandemiaren eraginak orekatzeko beharrezkoak diren baliabideen ondorioz. Hala ere, EAEko finantzaketa beharrak kontrolpean daude, **226M** euroko desfasea dago, baliabide ez finantzario batzuk konbinatuta, 5.589M euroraino iristen dena; enpleguak, berriz, 5.815M eurotan daude.


2. Moteltzea kreditu eta gordailu pribatuen hedapenean

Últimos datos publicados por BdE al cierre del informe: Junio 2021

Créditos S. Privado



Depósitos S. Privado




Pandemia gogortu ondoren, 2021eko ekaineko datuek erakusten dute **kredituak behera egin duela** (ESP: -% 0,2 eta EAE: -% 1,1) eta azken hiruhilekoetan zeukan gorako bidea eten duela; **gordailu pribatuen igoera, berriz, moteldu egin da** (ESP: % 5,6 eta EAE: % 3,6).

2. Sektorre pribatuari emandako saldoak apur bat behera egin du, eta gordailuek gora egin dute, baina apalago

Últimos datos publicados por BdE al cierre del informe: Junio 2021



% de variación de Créditos y Depósitos S. Privado



Iturria: BdE Gure datuak

Bigarren hiruhilekoan, **sektore pribatuaren gordailuen saldoa 88.168M eurora igo da (+% 3,5) eta kreditu pribatuena, aldiz, 61.602M eurokoa da (-% 1,1)**. Aldea 25.680M euro inguruan mantendu da, azken abenduko erregistroa baino apur bat beherago. Kreditu pribatuek gordailu pribatuen aurrean duten pisu erlatiboa % 70,9koa da EAEn (% 86,6koa da, aldiz, Espainian).

2. Hipoteka-merkatua, oso aktibo




Iturria: INE. Gure datuak

Hipoteka-merkatuaren dinamismoa oso altua izaten ari da, arrazoi hauengatik: pandemia osoan metatutako eskariarengatik; Europako Banku Zentralaren politika moldakorraren babespean dauden interes-tasa onengatik; eta epe ertain eta luzerako errentagarritasun erakargarriko inbertsio-osagaiak diren ondasun higiezinak mantentzeko joerarengatik. Hartara, azken hamabi hiletan **metatutako hipoteka-maileguk % 18** egin dute gora **merkatu orokorrean eta % 14,4**, euskal merkatuan.

3. Beheranzko bidera buelta




Evolución de la morosidad y cobertura




2021eko irailean, OSR kredituaren **berankortasun-tasa beheranzko bidera itzuli da** eta % **4,35**ean kokatu da: OSR kredituaren saldoa % 0,33 hazi da irailean, eta zalantzazko kredituen saldoa % 1,36 jaitsi da hilabete berean. Zalantzazko saldoen kopuruak 3.118 milioi egin du behera eta 52.815 milioitan kokatu da; kredituaren saldoaren murrizketa, berriz, 8.438 milioikoa izan da.

2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

<u>MENSUALES</u>	jun-21	jul-21	ago-21	sep-21
IPI (Eustat)	13,3	7,5	8,5	3,1
Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)	-16,7	-40,4	-52,7	-36,3
Hipotecas. Número (INE)	-33,2	-12,6	37,4	46,5
Hipotecas. Importe (INE)	-18,5	11,6	42,2	45,0
Compraventa viviendas	29,3	-107,0	11,1	55,9
Recaudación DDFF: Total impuestos (GV)	15,6	24,7	20,3	19,8



3. Euskal ekonomiaren hazkundera moteldu da



Hirugarren hiruhilekoan espero zen **suspertze-erritmoaren moteltzearen** eta aurreikuspenen zuzenketa orokorraren argitan, ez litzateke harrizkoa Eusko Jaurlaritzak ere jokabide bera izatea. Hortaz, litekeena da azken aurreikuspen ofizialei zuzenketak egitea, aurreikusitako % 6,7ko hazkundera baikorregia ematen duelako, pandemiak okerrera egin ondoren.

3. Euskal ekonomia. Aurreikuspenak

Euskadi	PIB	
Panel de Previsiones	2021	2022
Confebask	7,2	-
Hispalink (VAB)	6,7	5,3
BBVA	4,6	5,2
CEPREDE	4,2	6,7
Gobierno Vasco	6,7	6,4
Funcas	5,5	-
Media	5,8	5,9
<i>Máximo</i>	<i>7,2</i>	<i>6,7</i>
<i>Mínimo</i>	<i>4,6</i>	<i>5,2</i>

Fuente: DEP-dic 2021

4. Desberdintasun handiagoa suspertze sendo baten ondoren

IHS Markit Indice PMI compuesto de la Zona euro Diciembre 2021

IHS Markit Eurozone Composite PMI Output Index




[PMI: IHS Markit](#), Eurostat

Euroguneko ekonomiak **gorako bideari** eutsi dio ekitaldiko hirugarren hiruhilekoan. Oro har, Alemaniaren ahuldadea gorabehera, **hazkunde-tasa sendoa da** eta batez besteko historikotik gora dago, batez ere zerbitzuen sektorearen erresilientzia gaitasunari esker; nolana ere, fabrikatzaileek oztopo handiak izan dituzte eskaintzak izan dituen mugapenen ondorioz, eta horrek agerian utzi ditu ahultasun zantzu batzuk. Aurreikuspenak % 5,0 eta % 4,3 bitartekoak dira ekitaldi honetarako eta hurrengorako, hurrenez hurren.

4. Europako ekonomiaren hazkunde iraunkorra gehiegi berotzen ari den zantzuak daude


Previsiones OCDE



ELGA eta INE

Crecimiento del PIB en España




PIB: 2,7% (a/a) en IIIT2021



21IIIHn, Euroguneak % 3,7 egin zuen gora, kontsumoaren intentsitatea ardatz hartuta. Horrek Europako ekonomiak gehiegi berotu ditu eta maximoetara heldu dira negozio kopuruetan, enpleguaren suspertzean eta prezioen igoeran, batez ere energiaren prezioan. Horrekin guztiarekin batera, hornidura-kateetan dauden arazoak ditugu, ekoizpenaren etenaldiekin muturreko egoera batzuetan, eta maila baxuenetara erori den konfiantza.

Espainiako ekonomiak, bestalde, % **2,7** egin du gora, INEk bigarren hiruhilekoko hazkundeari egindako zuzenketa handiaren ondoren (% 1,1ean kokatu du). **Barne-eskariak** intentsitatea galdu eta behera egin du, lan-merkatuko datuek joera positiboa daukaten arren enpleguaren sorreran, afiliazioaren igoeran eta langabezia-tasaren murrizketan.


4. Espainiako ekonomiaren suspertzea moteldu da



Iturria: Funcas

Hirugarren hiruhilekoko datuak, % 2 inguruko BPGd-aren hazkundearekin, Espainiako ekonomiarako zeuden aurreikuspenak murriztu ditu eta **urteko aurreikuspena % 4,8koa** da orain, aurreikusitakotik oso urrun. **Birusaren seigarren olatuak sortu duen ziurgabetasunak** konfiantzari eragin dio eta kontsumoaren igoera moteldu du. Hornidura-kateko zailtasunek, energiaren igoerarekin batera, aldiz, suspertzeari indarra kendu diote eta prezioak aspaldi ikusi gabeko mailetara igoarazi ditu.

4. Espainiako ekonomiaren hazkunde aukerak



ELGE

Omikron aldaerak ekarri duen pandemiaren olatu berriak, ziurgabetasuna elikatu eta suspertze orokorraren intentsitatea baldintzatu du. **Suspertzeak ez du etenik izan, baina erritmoa galdu du** eta desoreka gero eta handiagoak ari da uzten agerian, mundu osoan txertaketa azkar eta eraginkor bat egiteko ezintasunen ondorioz. ELGAko herrialde gehienak pandemiaren aurreko erregistroen gainetik daude, baina txertaketa-tasa apalak dituzten herrialdeetan susperraldia kolokan dago.

4. Aurreikuspenen taula. Espainia

Última actualización

nov-21

España

Panel de Previsiones	PIB		IPC		PARO (EPA)	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AFI	4,5	6,0	2,8	2,1	15,2	14,4
BBVA	5,2	5,5	2,5	1,8	15,0	14,0
Caixabank	5,0	6,2	2,4	1,4	15,1	14,0
CEEM	5,3	6,1	3,0	2,7	15,2	14,7
CEPREDE	5,2	6,7	2,9	2,3	15,0	14,0
CEOE	4,8	5,0	3,0	2,3	15,1	14,2
Funcas	5,1	6,0	2,9	2,5	15,3	14,8
ICAE-UCM	4,8	6,2	3,1	3,7	15,3	14,5
IEE	4,6	4,7	2,9	2,2	15,2	14,4
Intermoney	5,1	6,2	2,9	2,5	15,3	14,5
CONSENSO (media)	4,8	5,7	2,9	2,4	15,2	14,4
Máximo	5,7	7,1	3,1	2,9	15,3	14,8
Mínimo	4,3	3,7	2,4	1,7	15,0	14,0
PRO MEMORIA						
Gobierno (jul21)	6,5	7,0	-	-		
BdE (sep21)	6,3	5,9	2,1	1,7		
CE (nov 21)	4,6	5,5	2,8	2,1	-	-
FMI (oct 21)	5,7	6,4	2,2	1,6		

Fuente: funcas

Euskal ekonomiaren bilakaera 2021IIIH

2021eko abenduaren 10a



kutxabank
empresas